


Bi konejuxoak



SOPHAREN
SOPHAREN
&
MARGO-EDERDUN
IPUIAK

CRUSQUETS

Nerea Mufson
656465702



Bein batean, ama konejua zan.
Amabi konejutxo zituan.

Konejutxoak oso biurriak ziran.
Aiek etxean bakarrik uzten
etzan ausartzen ama konejua.

Egun batean lengusua gaixotu zan.
Eta ama konejua lengusua zaitzera joan zan.

—Zintzoak izan, eta gaiztakeririk
ez eginesan zien konejutxoeri.

—Bai ama, zintzoak
izango gera-erantzun
zioten amabiak batera.



Bañan bakarrik gelditzean
or dijoaz janaritegira.
Azenario ta arrapatutako
dana jan zuten.



Bi konejutxo biurrienak,
Jauzkari eta Belarri-aundik,
au esan zien beste senideeri:

—Mundua ikustera goaz gu



Etxetik urruti ziran.
Orduan, arrano izugarri bat ikusten dute oiuka:

—Emen det
gaurko janaria!
Emen det
gaurko janaria!





Bi konejutzoen
gaiñera erori zan.
Jauzkari ta Belarri-aundi,
an inguruan zan
aterki barruan sartu ziran.



Arranoak orduan
kirtenetik eldu zion aterkiari
eta berarekin eraman zuan.



Eiztariak arranoa tiroz jo zuan.
Egazitizarrak aterkia laga zuan.
Eta Jauzkari ta Belarri-aundi
putzura jauzi ziran.

PAM

Aterkiari esker! udontzia zuten.


Ala ere, an itoko ziran,
cate zuriak uretatik atera ezbalitu.



Legortzeko, eguzkietan etzan ziran.
Jauzkarik onela dio Belarri-aundiri:

—Gure ibillera
ez den batere jolas ederra.
Etxera joango al gaitun?





Arranoak oso urrutira eraman zituan.

Eguerdia pasata goseak ziran.
Erletokia arkitu zuten.

—Eztia artuko al diñagu?




Erleak asarre
—Lapurrak! Lapurrak! — karraxika,
bi konejuengana joan ziran.

Jauzkari ta Belarri-aundi gajoak!
Arin ibilli bearra zegoan!

Lasterka, lasterka,
errekatxo batera
murgildu ziran.

Erleak etzuten buzi nai
eta erletokira itzuli ziran.



Goseak, eta otzak dardaraz abiatu ziran.
Etxera illuntzean eldu ziran.

Ama konejua, kezkatu
ate-ondoan zegoan.

Aren poza
konejutxoak ikustean!



Jauzkari ta Belarri-aundi besarkatu zituau.
Eta gero belarritik tira egin zien.

—Aste betean letxugarik gabe egongo zerate.
—Ama, ez degu sekula igesik egingo!

Eta beste anai-arrebak baño
obeak izango gera.

Eta alaxe izan ziran.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.293 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simón lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria